

# HARRAPATUTA

**Caritas Bizkaian**

**Laguntza jaso duten pertsonen egoera  
2022ko abendua**

**GIZARTE-ERREALITATEAREN BEHATOKIA**



**Caritas**  
Bizkaia

# ABIABURUA...



- AREAGOTU DIRA BAZTERKETA LARRIA + DESBERDINTASUN ARRAKALAK (FOESSA TXOSTENA EUSKADI 2021)
- 2022KO GERTAERAK:
  - BEHAR-BEHARREZKO ONDASUNEN PREZIOEN KRISIA
  - ETXEBIZITZEN ALOKAIUAK GARESTITZEA
  - ENPLEGUA GELDITZEA
  - OSASUN MENTALAREN GAIK INDARRA HARTZEA
  - ERREFUXIATUAK IRISTEA. UKRAINAKO GERRAREN KRISIA.
  - KRISI ENERGETIKOA

# ARAZO NAGUSIAK




**Caritas**  
Bizkaia

Azken 6 hilabeteetan zure proiektuaren edo zerbitzuaren bitartez laguntza jaso duten pertsonak bizi izan duten errealitatea kontuan hartuta, puntuatu egoera hauetako bakoitza maiztasunaren arabera: **1 ez da oso ohikoa edo ez da batere ohikoa, 2 gutxi-asko ohikoa, 3 oso ohikoa eta 0 ED/EE**

## CARITAS BIZKAIAREN LAGUNTZA JASO DUTEN PERTSONAK:

Euskadiko gizarte arazoan ispilua: **etxebizitza**, **lanaren ezegonkortasuna**, **pobrezia** eta hain agerian ez dauden arazoak : **bakardadea**, **arrakala digitala**, **irregulartasuna**, **etsipena**....


## LAGUNDUTAKO PERTSONEN 10 ARAZO NAGUSIAK



# KEZKA NAGUSIAK

**Oro har, zer da kezka gehien sortzen diena laguntzen diezun pertsoneri?**

KEZKEN RANKINGA



**ARAZO IKUSGAIAK ETA IKUSEZINAK**  
*Bakardadea, antsietatea, itxaropen falta.*

# VIDAS ENREDADAS EN UNA TELARAÑA DE PROBLEMAS ENCADENADOS QUE SE CRONIFICAN



PERTSONAK KEZKATZEN DITUEN GAI "GILTZARRIAK":

**KRITIKOA → Etxebizitza.** Dirurik ez edukitzea bizi diren gela edo etxea ordaintzeko, hori da lehenengo kezka.

→ **Lan egonkorrak** lortzea. Lana bilatzen duten pertsonak lan prekarioak aurkitzen dituzte, Bn lan egiten dute, esplotatuta... Horrek antsietatea, itxaropenik eza... eragiten die.

→ **Errolda**, "izugarrizko negozioa bihurtzen ari da, mafia bat. Jende asko ez da bizi erroldatuta dagoen lekuan. Beste familia batzuen kasuan, erdiak leku batean daude erroldatuta eta familia bereko beste batzuk beste etxe batean. Hori arazo handia da gizarte zerbitzuetara jotzeko, etab."

→ **Egoera irregularra:**

- bizitzeko/lan egiteko baimena eskatzeko **oztopo ugari**.
- **moteltasuna** atzeritarren bulegoetako eskaeretan

→ **Zaintzak, HAZIERA.** Lanak, prestakuntza eta seme-alaben ikasketak (euskara, etab.) uztartu ahal izatea. Eta **informazio ofizialagoa** edukitzea erabakiak hartzeko ikastetxeetan, administrazioan, osasunean, etab. Adin txikikoak dituzten familiek/pertsonak beren seme-alabei bizi kalitatea eskaintzeko ezintasuna. Kezka seme-alaben etorkizuna dela-eta.

KATEATZEN ETA KRONIFIKATZEN DIREN ARAZOEN  
ARMIARMA SARE BATEAN KORAPILATUTAKO  
BIZITZAK


**KEZKAK: IKUSGAIAK ETA IKUSEZINAK.**

**IKUSEZINA:** Elkarrizketetan, laguntzaren denborak aurrera egin ahala, kezka berriak agertzen dira, eta aurretik bazituzten ere ez zituzten proiektuetan adierazi, hala nola, atsekabea, itxaropenik eza... Gero eta gehiagotan eskatzen dute laguntza psikologikoa.

**TUNEL-EFEKTUA:** hilabeteko gastu finkoetarako diru sarrerara nahikoak ez edukitzearen ondorioz, ezin dute horretan ez beste ezertan pentsatu eta kontu ez hain materialetan zentratu...

**POBREZIAREN KIRIBILA:** Arazo ekonomikoak edukitzen hasten direnean sartzen diren **alfer gurpila** (zorrak, arazoak alokairuarekin...)

Batez ere lana aurkitzeko zailtasuna, funtsean egoera administrativo irregularrak eraginda, baina baita adinagatik, preskuntza eta esperientzia ezagatik ere. Beste zailtasun handietako bat etxebizitza duina eduki ahal izatea da, erroldatu ahal izateko.




# Kezka nagusiak

Bizirik irautea eta aurrera egitea, norberaren lasaitasunaren eta biziraupenaren aurkako mehatxu etengabeak dituen gizarte batean. Kosta egiten zaie aurrera egitea, eta **antsietatea** eta **nekea** sentitzen dute, gai izatearen sentipena galtzen dituzte, eta, hortik abiatuta, familia sistemari eta adingabeei eragiten dieten bizikidetzaren eta harreman arazoak sortzen dira. Gero eta gehiago, pertsonak arreta indibidualagoa behar dute, gure **osasun mentala** zaindu behar dugu, eta adingabeei, berriz, **arreta berezia** eskaini behar zaie **zaurgarritasunari** dagokionez, ez dezaten galdu hazteko eta distira egiteko gaitasuna.


INKLUSIOA



BAZTERKETA



## BIZIRIK IRAUTEKO ESTRATEGIAK



**Bizirik irauteko estrategia hauek,** egoera hobetu beharrean, pobrezia eta bazterkeriaren zurrunbiloan murgiltzen dituzte.



# ESTRATEGIAK II ERRESILIENTZIA



*Erabiltzen al dituzte pertsonak ekonomikoak ez diren bestelako estrategiak?*

## Harreman ondasunak, hitz egitea, espiritualtasuna, arreta psikologikoa.

- Laguntza bilatzen dute **komunitatean**, senide, lagun, auzokideen artean. **Laguntza psikologikoa** bilatzen dute, eta **fedea** laguntza handia da. Elkarrekiko berotasuna da garrantzitsuena, eta **iraganean aurrera egiteko lagungarri izan zituzten gaitasunetan konfiantza hartzea**; horrela, beren esperientzia pertsonaletik eta harremanetatik abiatuta sendotuko dira.
- Harremanak, elkar babestea. Elizara joatea, otoitz taldeak.
- Tratamenduak Osasun Mentaleko zentroetan. Harremanak; boluntariora hainbat lekutan.
- Entzuteko Zerbitzua erabiltzea eta laguntza psikologikoa eskatzea, emakume taldeak erabiltzea, duten larritasuna "kanporatzeko" gune gisa...
- Gero eta sarriago tratamendu psikologikoa eskatzen digute, edo zuzenean medikuari eskatzen diote; gainera, ohikoa da medikazioari uko egitea, terapiaren beharraz jabetzen direlako, eta ez bakarrik medikazioaren beharraz.
- Eliza ebanjelikora edo gurtzarako beste leku batzuetara ere joaten dira.

KONTSUMITZEA ZAILTASUNETATIK ETA ESTRESETIK IHES EGITEKO  
KEXUAN/AUHENEAN IXTEA  
Bakardadean paseatzea

# EGUNGO EGOERA: Nola gaude laguntzen ditugun pertsonak eta familiak?

## Fitxa teknikoa

	Erantzunak guztira	
<b>Jasotako erantzunak:</b>	125	% 87
<b>Bidalitako galdetegiak</b>	142	% 100
<b>Esku hartzean kontratatuak</b>	92	% 65
<b>Arduradun kontratatuak</b>	18	% 13
<b>Boluntarioak</b>	32	% 22

ESKU HARTZEN DUTEN LANGILE TEKNIKO GUZTIEI + ERREFERENTZIAZKO BOLUNTARIOEI EGINDAKO GALDETEGIA.



**Caritas**  
Bizkaia